

Hiltzen dago lurrean
pobrea.
Belarra, arkaitza, ura, eguzkia
anaia zituen pobre ona.
Maite zuena lurrean dago,
beti ona izan dan
animali santu bat bezala mantso hiltzen.

Arbolartean dago
argi pobrea, bilois,
hiltzen eta geldiro hiltzen.

7. Azurmendi

ARGAZKI AURREAN

K-RI, BETI BEGIRA

Oroimen bat nahi nioke
zure izenari ebagi.

Zure ezpaineri nahi nieke
musu bat ebagi.

Zure begieri begiak,
zure tristura begiratuari.

Dorre zaharrak zazpirak ematean
azkeneko silaba ebagi nai nioke
bertsoari. Itsasoari azkeneko aparra.
Ilargiari azkeneko argia
niretzat bakarrik.

Ebagi nahi nieke zure ezpaineri
inoiz esan ez didaten hitzori.

